



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2017KO MARTXOAREN 3KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2017.03.03.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Goiener irabazi asmorik gabeko hiritarren kooperatiba energetikoaren proposamena.
- 3.-Nafarroako Amnistia Internacional erakundeak errefuxiatuei buruz aurkeztutako mozioa.
- 4.-Araba Euskaraz 2017: diru laguntza eskaera.
- 5.-2016ko kontuak: aldeko txostena.
- 6.-Udaleko Hirigintzako Plana egiteko hitzarmena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2017ko otsailaren 17an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 5. puntuan jendaurreko epea hilabete bateko da eta ez hogeii egunekoa.

### **2.-GOIENER IRABAZI ASMORIK GABEKO HIRITARREN KOOPERATIBA ENERGETIKOAREN PROPOSAMENA.**

Ikusirik Goiener irabazi asmorik gabeko hiritarren kooperatibak aurkeztutako proposamena.

Ikusirik Udalak dituen argien kontratoak eta konparatuz orain arteko baldintzak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udala Goiener irabazi asmorik gabeko hiritarren kooperatiba energetikoan bazkide izatea.

2) Frontoia, eskola eta Herriko Etxeko argi kontratuak Iberdrola enpresarekin anulatzea eta alta ematea Goiener kooperatiban.

### **3.-NAFARROAKO AMINISTIA INTERNACIONAL ERAKUNDEAK ERREFUXIATUEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Ikusirik Nafarroako Amnistia Internacional erakundeak aurkeztutako mozioa, errefuxiatuei buruz:

“Inoiz ez bezalako egoera dugu aurrean, eta nazioarteko komunitateak urgentziazko neurriak hartu behar ditu berehala, eta egoerari aurre egiteko beharrezkoa den moduan jokatu behar du.

ACNUR-UNHCR agenziaren arabera, 2016. urtearen hasieran, Bigarren Mundu Gerratik lehen aldiz, 65 milioitik gora pertsonak utzi behar izan zituzten euren bizitokiak, jaioterrietako gatazken, jazarpenen eta giza eskubideen urraketan ondorioz. Kopuru hori are handiagoa litzateke, hondamendi naturalen edo pobrezia-ondorioz lekualdatu behar izan duten milaka pertsonak gehituko bagenizkio. Egoera horrek agerian utzi du nazioarteko komunitatea ez dela gai gatazkak eta larrialdi humanitarioko egoerak konpondu eta prebenitzeko, eta agerian utzi du, halaber, politikariek ez dutela inolako borondaterik giza eskubideen eta nazioarteko babesaren arloan dagozkien nazioarteko betebeharrak betetzeko.

Irailaren 22an urtebete egin zuen Europar Batasuneko agintariek larrialdiko birkokatze-mekanismo bat adostu zutela asilo-eskatzailen gaineko erantzukizuna partekatzeko. Hala ere, ehunka mila pertsona ez atzera ez aurrera daude errefuxiatuentzako eremuetan, baldintza negargarrietan.

Greziaren kasuan, birkokatze-konpromisoen % 6 bakarrik bete dira. Martxa horretan, 16 urte beharko lituzkete birkokatze-konpromisoak betetzeko. Lotsagarria da Europa ez gai izatea politika alde batera utzi, eta krisi humanitarioa errefuxiatu kopuru erlatiboki txikiaren erantzukizuna modu bidezkoan partekatuz konpontzeko.

Espainiaren kasuan, kopuruak adierazgarriak dira. 2015eko irailean, Espainiak Grezia eta Italiatik 15.888 pertsona birkokatze-konpromisoa hartu zuen, baina 2017ko urtarrilaren 16an 690 besterik ez dira iritsi. Bestalde, 2016ko lehen hiruhilekoan, Espainiak 1.449 pertsona berrasentatzeko konpromisoa hartu zuen, baina 2017ko urtarrilaren 16an 289 pertsona bakarrik iritsi dira.

Hau da, konpromiso horiek hartu zituenetik urtebete baino gehiago igaro bada ere, Espainiak 979 pertsona bakarrik hartu ditu. Kopuru hori oso urrun dago Gobernuak izenpetutako konpromisotik, hau da, 17.337 pertsona hartzeko konpromisotik”.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Honako hauek eskatu nahi dizkio Espainiako Gobernuari:

-Errefuxiatuak birkokatze nahiz berrasentatzearen bidez Espainiara ekartzeko prozesuak nabarmenki arin ditzala.

-EBrekin **17.337 pertsona** hartzeko izenpetu zuen konpromisoa aurreikusitako epean bete dezala.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### 4.-ARABA EUSKARAZ 2017: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Araba Euskaraz Elkartek aurkeztutako idatzia, 2017ko jaia antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Kontuan hartuz aurtan Nafarroa Oinez 2017 dela eta laguntza ematea erabaki dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Araba Euskaraz Elkarteari diru laguntzik ez ematea, Udalak bertze lehentasunak dituelakoz eta aipatutako arrazoiengatik.

### 5.-2016KO KONTUAK: ALDEKO TXOSTENA.

Ikusirik 2016ko ekitaldiko kontuen espedientea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2016ko ekitaldiko kontuen espedienteari aldeko txostena ematea.

2) Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, iragarki hau herriko taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

### 6.-UDALEKO HIRIGINTZAKO PLANA EGITEKO HITZARMENA.

Arantzako Udalak Udala Plan berria egiteko akordioa eta diru laguntza eskaera igorri zuen Nafarroako Gobernuari.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentutik igorritako hitzarmenaren zirriborroa, udalak plan berriarekin dituen xedeak betetzeko eskatuz, ondoren, onartu eta sinatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udaleko arkitektoei aipatutako xedeak zehazteko eskatzea.

### 7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 24. ebazpenetik 37. ebazpena arte.

### 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



